


Normalak bagina bezala

1. Zein ote dira aldaketaren arrazoiak?



<https://labur.eus/bPEVv>

X. Mendiguren idazleak bere pentsamendu eta usteetan izan den aldaketa baten berri ematen digu Berriako iritzi-artikulu honetan.


Bi pasarte hauek testutik atereak dira; lehena artikulua hasieran zegoen, bigarrena bukaera aldean. Bien artean zegoen hasieran zuen ustetik orain duen uster a eraman duen arrazoiak. Irakurri aurretik saia zaitzete taldean asmatzen zein izan zitezkeen (zitezkeen) arrazoi hori.

Azken urteetan, behin baino gehiagotan defendatu izan dut ez direla egin behar gauzak euskararen alde, baizik eta euskaraz...



... onartzen dut hemen oker nengoela nire usteetan. Ez dela nahikoa euskaraz hitz egiten saiatzea, euskal kultura kontsumitzea, gizarte euskaldun batean bizi nahi izatea...

-
-
-
-
-



2. Irakurri eta ulertu testua

Irakurri artikulua eta ondorengo baieztapen hauetatik zein dagoen artikuluko muinetik hurbilago erabaki.

- a) Euskararen normalizazioa lortzeko onena euskara edozein lekutan normaltasunez erabiltzea da, ez da behar euskararen aldeko bulego berezirik, ezta euskaraldiaren antzeko ekitaldirik ere.
- b) Gizartean normal izateko ez da aski gure berezitasuna normal bidez, inguruak gu baztertzeko milaka modu dituelako, berdina da zein den berezitasun hori.
- c) Euskararen normalizazioa beste bazterketen ispiluan ikusi behar dugu. Beltzak, homosexualak edo emakumeak bazterketa gainditzeko egin dutena ez da baliagarria euskaldunontzat, beste mekanismo sozial batzuk dagozkio hizkuntzaren arazoari.

berria



Gizartea Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro Berria TB

Iritzia

ARKUPEAN

Normalak bagina bezala



Xabier
Mendiguren
Elizegi

2018ko abenduak 12



Azken urteetan, behin baino gehiagotan defendatu izan dut ez direla egin behar gauzak euskararen alde, baizik eta euskaraz. Barregarria eta agian kaltegarria dela euskara goratzeko hitzaldi edo mahai-inguru bat antolatzea erdarazko ekitaldien itsasoaren erdian, eta askoz onuragarriagoa litzatekeela mahai-inguru edo hitzaldiak egitea, bai, futbolaz, sukaldaritzaz edo zernahitaz, baina euskaraz; udal guztietan euskara sail bat (bere zinegotzi, teknikari, itzultzaile, administrari, bulego, aurrekontu eta batzordearekin) edukitzea baino praktikoagoa litzatekeela hirigintza, pertsonal eta udaleko gainerako departamentuek euskaraz funtzionatzea; nagikeria itzela ematen didatela hizkuntza sustatzeko lip-dubek, ginkanek eta osterantzeko kirol probek, eta probetxuzkoagoa litzatekeela horko partaideek, etxeko patxadan, euskarazko liburu bat irakurriko balute, noizean behin.

Nire pentsamendu horiek bazuten zerbait alferkeriatik, erosokeriatik, baita elitismotik ere, baina funtsean nahi bat zeukaten gordea: normala izateko ametsa; munduko beste hizkuntza normal guztietan bezala, neure hizkuntzan mintzatzeko, irakurtzeko, bizitzeko gogoia, horri buruz pentsatzen eta horren aldeko aktibismoan jardun beharrik gabe.

Zoritarrez, amets hori ezinezkoa da, eta hobe da horretaz garaiz konturatzea, paretaren kontra buru joka tematzea baino.

Hizkuntza minorizatueta hitzunak ez gara dilema hori bizi dugun bakarrak: gutxiengo edo bazterketa egoeran dauden talde guztiei gertatzen zaie, eta kontzientzia garatua dutenek horretaz jabeturik ekiten diote lanari. Har dezagun, adibide moduan, arraza diskriminatu bat: zu azalez beltza bazara, helburutzat eduki zenezake koloreak axola ez duen gizarte batean bizitzea, inork ez erreparatzea zure ile kizkurrari edo sudur zapalari, eta zu zeu ere ahaztea ondokoak zu baino zurbilagoak ote diren edo ez. Normaltasuna amets izatea ona da, noski, baina dagoeneko normala bazina bezala jokatzeko biderik aiposena ote da horretarako, jakinda diferente begiratuko dizutela alokairu baten bila zoazenean, lanpostu baterako elkarrizketa bat egiten dizutenean, diskoteka batean sartu nahi duzunean, zure bikotekideak bere gurasoak aurkezten dizkizunean?

Arraza aipatu dudan lekuan, beste hainbat kontu aipa litezke: joera sexual ez hegemonikoa, esate baterako, edo emakumea izatea bera. Gizartean besteak bezalakoa izateko ez da aski besteak bezala jokatzeko, milaka mekanismo sozial daudelako homosexualak gutxiesteko, emakumeak bigarren mailan uzteko, zuriak ez diren arrazetakoak existituko ez balira bezala egiteko. Mekanismo horietaz ohartzea, agerian jartzea eta salatzea ezinbesteko pausoa da bazterturik dagoena erdigunera ekartzeko, anormaltzat jotzen dena normaltzat hartzen hasteko.

Horregatik onartzen dut hemen oker nengoela nire usteetan. Ez dela nahikoa euskaraz hitz egiten saiatzea, euskal kultura kontsumitzea, gizarte euskaldun batean bizi nahi izatea, nahi hori ezinezko egiten duten faktoreak ezin konta ahala direlako eta haiei ez ikusia egitea itsukeria besterik ez delako. Horrenbestez, oso positibotzat daukat iragan berri den Euskaraldia, eta jarraipena emateko moduak asmatu beharko ditugu; beharrezkoa da Durangoko Azoka, bere oasitasunean arnasa ematen digulako euskaraz sorturiko kulturaren sinesten dugun guztiei; eta beste horrenbeste esango dut datorren urtean egingo den Korrikari buruz.

Hori esanda, baina, utz iezadazue amets alfer bat egiten, non euskaraz bizitzeko ez dudan beharko txapa bat jantzi paparrean, non euskarazko disko eta liburuak nagusi izango diren eguneroko bizitzan, non neure etxeko sofan sentitu ahalko naizen euskaldun, makila bat eskuan lasterka ibili beharrik gabe.

3. Aztertu testuaren koherentzia eta garapena

3. Artikulua zazpi paragrafotan dago egituratuta. Esango al zenukete zein den lehen sei paragrafoen zentzua. Hiru dituzue jarrita.

1. **Paragrafoa:** Gaiaren inguruan lehenago zuen iritzia eta haren oinarriak azaltzen ditu.


2. **Paragrafoa:** _____

3. **Paragrafoa:** Inflexio puntua markatzen du, ideia zaharretik berrirako jauzia egiteko.

4. **Paragrafoa:** _____


5. **Paragrafoa:** Eskuratu duen ideia nagusi berria agertzen da: "Gizartean besteak bezalakoa izateko ez da aski besteek bezala jokatzeara"

6. **Paragrafoa:** _____



4. Lehen paragrafoaren egitura

Jarri dezagun orain arreta lehen paragrafoaren egiturari. Paragrafo honen eskema hau litzateke: ideia nagusia eta hau argitzen duten hainbat adibide:



Artikuluaren egileak paragrafo bakarrean bildu ditu guztiak (101 hitz). Saia zaitzete zuek ere ideia horiek paragrafo bakarrean biltzen. Egin ondoren alderatu jatorrizkoarekin.



5. Ez dira berdinak, antzekoak bakarrik

5. Artikuluan zehar ETA lokailu/juntagailua 16 aldiz erabilia izan da, ez ordea beti berdin. Dagoeneko ikusi duzue lehen paragrafokoak nola egin dituen. Batzuetan aurretik hutsunea du (eta), besteetan koma+hutsunea (, eta), bakarrean puntu eta koma+hutsunea (; eta). Erabilera hau, ordea, ez dago nolanahi eginda, badu arrazoirik. Osatu testua horietako bakoitza bere lekuan jarrita.

Azken urteetan, behin baino gehiagotan defendatu izan dut ez direla egin behar gauzak euskararen alde, baizik eta euskaraz. Barregarria eta agian kaltegarria dela euskara goratzeko hitzaldi edo mahai-inguru bat antolatzea erdarazko ekitaldien itsasoaren erdian, eta askoz onuragarriagoa litzatekeela mahai-inguru edo hitzaldiak egitea, bai, futbolaz, sukaldaritzaz edo zernahitaz, baina euskaraz; udal guztietan euskara sail bat (bere zinegotzi, teknikari, itzultzaile, administrari, bulego, aurrekontu eta batzordearekin) edukitzea baino praktikoagoa litzatekeela hirigintza, pertsonal eta udaleko gainerako departamentuek euskaraz funtzionatzea; nagikeria itzela ematen didatela hizkuntza sustatzeko lip-dubek, ginkanek eta osterantzeko kirol probek, eta probetxuzkoagoa litzatekeela horko partaideek, etxeko patxadan, euskarazko liburu bat irakurriko balute, noizean behin.

Nire pentsamendu horiek bazuten zerbait alferkeriatik, erosokeriatik, baita elitismotik ere, baina funtsean nahi bat zeukaten gordea: normala izateko ametsa; munduko beste hizkuntza normal guztietan bezala, neure hizkuntzan mintzatzeko, irakurtzeko, bizitzeko gogoia, horri buruz pentsatzen ___ horren aldeko aktibismoan jardun beharrik gabe.

Zoritxarrez, amets hori ezinezkoa da ___ hobe da horretaz garaiz konturatzea, paretaren kontra buru joka tematzea baino.

Hizkuntza minorizatueta hitzunak ez gara dilema hori bizi dugun bakarrak: gutxiengo edo bazterketa egoeran dauden talde guztiei gertatzen zaie ___ kontzientzia garatua dutenek horretaz jabeturik ekiten diote lanari. Har dezagun, adibide moduan, arraza diskriminatu bat: zu azalez beltza bazara, helburutzat eduki zenezake koloreak axola ez duen gizarte batean bizitzea, inork ez erreparatzea zure ile kizurrari edo sudur zapalari ___ zu zeu ere ahaztea ondokoak zu baino zurbilagoak ote diren edo ez. Normaltasuna amets izatea ona da, noski, baina dagoeneko normala bazina bezala jokatzeko biderik aproposena ote da horretarako, jakinda diferente begiratuko dizutela alokairu baten bila zoazenean, lanpostu baterako elkarriketa bat egiten dizutenean, diskoteka batean sartu nahi duzunean, zure bikotekideak bere gurasoak aurkezten dizkizunean?

Arraza aipatu dudan lekuan, beste hainbat kontu aipa litezke: joera sexual ez hegemonikoa, esate baterako, edo emakumea izatea bera. Gizartean besteak bezalakoa izateko ez da aski besteek bezala jokatzeko, milaka mekanismo sozial daudelako homosexualak gutxiesteko, emakumeak bigarren mailan uzteko, zuriak ez diren arrazetakoak existituko ez balira bezala egiteko. Mekanismo horietaz ohartzea, agerian jartzea ___ salatzea ezinbesteko pausoa da bazterturik dagoena erdigunera ekartzeko, anormaltzat jotzen dena normaltzat hartzen hasteko.

Horregatik onartzen dut hemen oker nengoela nire usteetan. Ez dela nahikoa euskaraz hitz egiten saiatzea, euskal kultura kontsumitzea, gizarte euskaldun batean bizi nahi izatea, nahi hori ezinezko egiten duten faktoreak ezin konta ahala direlako ___ haiei ez ikusia egitea itsukeria besterik ez delako. Horrenbestez, oso positibotzat daukat iragan berri den Euskaraldia ___ jarraipena emateko moduak asmatu beharko ditugu; beharrezkoa da Durangoko Azoka, bere oasitasunean arnasa ematen digulako euskaraz sorturiko kulturaren sinesten dugun guztiei ___ beste horrenbeste esango dut datorren urtean egingo den Korrikari buruz.

Hori esanda, baina, utz iezadazue amets alfer bat egiten, non euskaraz bizitzeko ez dudan beharko txapa bat jantzi paparrean, non euskarazko disko ___ liburuak nagusi izango diren eguneroko bizitzan, non neure etxeko sofán sentitu ahalko naizen euskaldun, makila bat eskuan lasterka ibili beharrik gabe.

6. Zertara dator hau?

6. Azken paragrafoa (7. paragrafoa) zer iruditu zaizue, zer bilatzen du idazleak azken paragrafo horrekin? Badirudi 6. paragrafoan jada uste berriaren ondorioak aterata dituela, baina azken paragrafo hori eransten du. Zertarako? Eztatidatu zuen artean hipotesia desberdinak.

Erantzunak eta iruzkinak

1. Zein ote dira aldaketaren arrazoiak?

Ez dago erantzun okerrik, idazleak bereak emango ditu testua. Arrazoiak nork bereak baititu.

2. Irakurri eta ulertu testua

b) Gizartean normal izateko ez da aski gure berezitasuna normal bizitzea, inguruak gu baztertzeko milaka modu dituelako, berdin da zein den berezitasun hori.

3. Aztertu testuaren koherentzia eta garapena

1. Paragrafoa: Gaiaren inguruan lehenago zuen iritzia eta haren oinarriak azaltzen ditu.
2. Paragrafoa: Aurreko iritzia epaitzen du, ameskeria dela ondorioztatu du
3. Paragrafoa: Inflexio puntua markatzen du, ideia zaharretik berrirako jauzia egiteko.
4. Paragrafoa: Orokortzea logika-baliabidea erabiltzen du arrazoiaketa teknika moduan, antzeko egoeran dauden beste kolektiboetara erreparatuta
5. Paragrafoa: Eskuratu duen ideia nagusi berria agertzen da: "Gizartean besteak bezalakoa izateko ez da aski besteak bezala jokatzeko"
6. Paragrafoa: Hartutako ideia nagusi berria euskararen egoerari aplikatzen dio eta horren ondorioak ateratzen ditu

Ikusten denez, jarraitzen duen garapena espero litekeena, ohikoena, da: 1-aurreko egoera 2-arazoa 3-ideien arteko gatazka 4-idea berria nagusitzen da 5-ondorioak ateratzen dira.

4. Lehen paragrafoaren egitura

Ikusten dugunez, esaldi nagusia puntu baten bidez banatuta dago mendekoetatik. Esan genezake "defendatu izan dut" aditz nagusia elipsian dagoela paragrafoan zehar. Ondoren datozen mendeko esaldietan, **-ela** atzizkia ikusten dugu elipsian dagoen aditz nagusiari lotzeko. Honela idazleak lortzen du testua arintzea, behin eta berriro "defendatu" edo antzeko aditzak erabiltzen ibili beharrik ez izateko.

Azken urteetan, behin baino gehiagotan **defendatu izan dut** ez direla egin behar gauzak euskararen alde, baizik eta euskaraz. Barregarria eta agian kaltegarria **dela** euskara goratzeko hitzaldi edo mahai-inguru bat antolatzea erdarazko ekitaldien itsasoaren erdian, eta askoz onuragarriagoa **litzatekeela** mahai-inguru edo hitzaldiak egitea, bai, futbolaz, sukaldaritzaz edo zernahitzaz, baina euskaraz; udal guztietan euskara sail bat (bere zinegotzi, teknikari, itzultzaile, administrari, bulego, aurrekontu eta batzordearekin) edukitzea baino praktikoagoa **litzatekeela** hirigintza, pertsonal eta udaleko gainerako departamentuek euskaraz funtzionatzea; nagikeria **itzela ematen didatela** hizkuntza sustatzeko lip-dubek, ginkanek eta osterantzeko kirol probek, eta probetxuzkoagoa **litzatekeela** horko partaideek, etxeko patxadan, euskarazko liburu bat irakurriko balute, noizean behin.

Puntuazioa giltzarria da testua arintzeko eta, aldi berean, ulergarria egiteko, batez ere dagoen elipsia ulergarri egiteko. Esaldi nagusia puntuan amaitzen da. Hurrengoak puntu eta koma bidez banatzen dira, baina lehena eta hirugarrenaren barruan bi azpiatal daudenez, hauek koma eta eta lokailuaz banatzen (elkartzen) dira. Esaldi bakoitzaren barruan hainbat aldiz erabiltzen da koma enumerazioak egiteko.

5. Ez dira berdinak, antzekoak bakarrik

Alderatu jatorrizko testuarekin. Erreparatu enumerazio baten atalen artean dagoen, edota ideia batetik hurrengorako lokailu gisa sartu den "**eta**" hori.

6. Zertara dator hau?

Baliabide literario dela esan genezake. Horren bidez, irakurleari keinu "gizatiarra" egiten dio; denok gara "arrazoizko", baina baita "emoziozko" ere, eta gure ametsak aldarrikatzen ditugu, arrazoizkoak ez badira ere, inoiz arrazoizkoak izango direlakoan.